




Nami Kaneko (japoniar itzultzailea), Bernardo Atxaga, Juan Kruz Igerabide (Mikel Laboa katedrako arduraduna) eta Lourdes Otaegi (gaur ariko den EHUko irakaslea). :: MICHELENA

# Kanta, azkena ahazten den gauza

Laboaren oroimenezko jardunaldietan Oteizaren garrantzia azpimarratu du Atxagak



KMko Ganbarako instalazio musikala zabaldu zen atzo. :: MICHELENA

«Kantaren helburua baldin bada gogoangarria izatea, Laboak bete zuen hori», esan zuen atzoko saioan Asteasuko idazleak

:: FELIX IBARGUTXI

**DONOSTIA.** «Giuseppe Ungaretti-ren poema bateko hitzek definitzen dute ondo Mikel Laboaren izakera. Alegia, hobe da hiltzea alondra egarritua bezala espejismoaren aurrean, eta ez kezuka, kardantxilo itsutu bat bezala. Mikel Laboa lehiatu egin zen, borrokatu egin zen azkenera arte». Atzo, hitz hauekin bukatu zuen hitzaldia Bernardo Atxagak. Berak eman zion hasiera Mikel Laboa Katedrak antolatutako Mikel Laboaren oroimenezko jardunaldiei. Eta haren ostean, bi kantari aritu ziren: Anari eta Ruper Ordorika.

Beste askotan bezala, Atxagak pasadizo batekin eman zion hasiera jardunari: «Orain dela hamar bat urte, Montevideon nengoela, lagun batekin paseatzen, gizon bat arri-matu zitzaigun, esanez poltsa bat irekita geneukala eta horrek bazuela bere arriskua Montevideo beza-

lako hiri batean. Halaxe, hizketan hasi ginen eta esan zigun birramona Euskal Herrikoa zuela, eta oraindik gogoan zeukala txikitik kantatzen zion kanta bat. Gure gizona tango-kantaria izana zen eta 80 bat urte izango zituen. Hasten zaigu kantuan eta zer izango eta 'Iruuten ari nüzü'! Iparraldeko azentuarekin kantatu zigun gainera. Zer da kanta bat? Azkena ahazten den gauza. Munduan eginkizun asko daude, baina lanbide moduan kantua hartzen duena oso lanbide berezia hartzen du. Kantaren garrantzia erabatekoa da. Noranahi goazela, beti daude tartean kantuak. Historiarrean ere, kobazuloetan, kantuak egingo ziren. Beraz, Laboa langintza horretan sartu zen eta erabat bete zuen bere patua. Kantaren helburua baldin bada gogoangarria izatea, Laboak bete zuen hori. Eta azken pausoa baldin bada jendeak autorea ahaztea eta kanta hori herri-kanta bihurtzea, hori ere gertatu da, adibidez 'Txoria txori'-ren kasuan. Jendeak uste du herri-kanta dela».

Ondoren, Laboaren hiletari buruz jardun zuen Atxagak. 2008ko abenduak 7 izan zen, kantaria hil eta handik sei egunera, eta Asteasuko idazlea izan zen orduko hizla-

## GAURKO EGITARAUA

► 16:00. Lourdes Otaegi (EHU): «Mikel Laboaren 'Antzinako bihotza' eta 'Liluraren kontra'».

► 16:30. Juan Gorostidi ('Lau kantari' liburuaren egilea).

► 17:30. Arantxa Iturbe kazetaria: «Mari Sol Bastidarekin baka-rrizketan».

► 18:30. Xabier Montoia hitzez eta kantuz.

**Atxaga: «Ni testigu izan nintzen nola erabili zen txalaparta Rikardo Arregiren hiletan»**

rietako bat.

Gogorazi zuen Agina oso toki berezia dela, lehendik ere ehundik gora monumentu megalitiko daudelako inguru hartan, eta 60ko hamarkadan Aita Donostiaren oroimenezko hilarria ipini zen tokian ere harrespila omen dago.